

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

3590

AGINDUA, 2017ko uztailako 11koa, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuarena, zeinaren bidez iragartzen eta arautzen baitira 2017. urteko goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak.

Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak, agindu honen bidez, diru-laguntzen lerro bat ezartzen du Euskal Autonomia Erkidegoan goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzen laguntzeko.

Izan ere, goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko jarduerak sustatzeari garrantzizko irizten dio Eusko Jaurlaritzak, eta horregatik egiten du deialdi hau. Oro har, kirola bultzatzeko pizgarri dira lehiaketok, lehiarako marko bat eskaintzen die goi-mailako euskal kirolariei eta jarduera ekonomiko-a sortzen dute.

Euskadiko kirolari buruzko ekainaren 11ko 14/1998 Legearen arabera, goi-mailako kirola herri-interesekoa ere bada; izan ere, batetik, funtsezko faktorea da Euskal Autonomia Erkidegoan oinarritzeko kirola garatzeko, eta, bestetik, Estatu-mailako eta nazioarteko kirol-lehiaketa ofizialetan errepresentazio-funtzioa du. Euskal Autonomia Erkidegoko instituzio komunei ematen die goi-mailako kirola antolatu eta sustatzeko eskumenaz baliatzeko ahalmena.

Agindu hau, halaber, Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren Diru-laguntzen Plan Estrategikoaren barruan sartzen da. Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuak onartu du plan hori, eta aipatutako sailaren web-orrian dago argitaratuta.

Gogoan hartuta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, I. tituluaren IV. kapituluaren xedatzen duena, modu aktiboan izango du kontuan emakumeen eta gizonen berdintasunaren helburua, diruz laguntzekoa den programa hau landu eta aplikatzean.

Hortaz, ezarri behar dira, batetik, kirol-lehiaketak goi-mailakotzat hartzeko izan behar dituzten ezaugarriak definitzeko betekizunak eta irizpideak, eta, bestetik, aipatu diru-laguntzak eskatu, iza-pidetu eta ematea erregulatzeko arauak.

Horren ondorioz, honako hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– Xedea.

1.– Agindu honetan, 2017. urtean egingo diren edo egiten hasten diren goi-mailako kirol-lehiaketak antolatzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen da, artikulua honetan xedatutako eran. Deialdi hau helburu, honako hauek joko dira goi-mailako kiroltzat: nazioarteko eremu eta izaerako lehiaketak, honako baldintza hauek betetzen badituzte, betiere:

– Nazioarteko federazio baten, europar federazio baten edo nazioarte-mailako liga profesional baten egutegi ofizialaren barruan egon beharko dute.

– Mundu-mailako lehiaketetan, kontinente biko edo gehiagoko kirolariek hartu beharko dute parte.

- Lehiaketa guztietan, herrialde biko eta gehiagoko kirolariek hartu beharko dute parte.
- Zirkuitu edo ligaren formatuko lehiaketak, herrialde bitan edo gehiagotan antolatu beharko dira.

Tenisaren kirol-modalitateari dagokionez, honako hauek izango dira diru-laguntzen helburu: Europar Federazioaren, Tennis Profesionalaren Elkartearen eta Kirol Egokituaren Nazioarteko Federazioaren egutegi ofizialean sartuak diren kirol-lehiaketak.

Surfaren kirol-modalitateari dagokionez, honako hauek izango dira diru-laguntzen helburu: Nazioarteko Elkartearen, Europar Federazioaren eta Surfari Profesionalen Elkartearen egutegi ofizialean sartuak diren kirol-lehiaketak.

2.– 2017. urtean hasten diren lehiaketetarako ematen diren diru-laguntzak ezingo dira erabili urtealdi horretatik kanpoko gastuak ordaintzeko.

3.– Agindu honetatik kanpo geratuko dira honako lehiaketa hauek: kirol-erakusketa edo -ikuskinak eta nazioarteko eremua eta izaera ez dutenak.

4.– Diru-laguntzak lortzeko Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak nahitaez erabili beharko dira proposatutako lehiaketan zehar, eta, zehazki, publizitateari eta agiriei dagokionez (gutunak, kartelak, liburuxkak, programak, megafonia, etab.)

5.– Ezingo dituzte inola ere diru-laguntza hauek eskatu, eta, hortaz, deialditik kanpo geratuko dira, bi sexuen arteko berdintasun-tratua eta -aukerak bermatzen ez dituzten egitasmoek.

6.– Deialdi honetan erregulatutako diru-laguntzak lotuak dira Europar Batasunak ezarritako «minimis» erregimenari. Europako Batzordearen 2013ko abenduaren 18ko 1407/2013 (EE) Araudia, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatuaren 107. eta 108. artikulua «minimis» laguntzei aplikatzeari buruzkoa (2013ko abenduaren 24ko EBAO, L 352/1. zk.).

2. artikulua.– Aurrekontuko zuzkidura.

Deialdi hau lehiaketa-prozeduraren bidez ebatziko da, agindu honen 11. artikuluan ezarritako irizpideei jarraikiz. Horretarako, guztira, berrehun eta bost mila (205.000) euro erabiliko dira; horietatik 92.250 euro 2017. urterako ordainketa-kreditu izango dira, eta gainerako 112.750 euroak 2018. urterako konpromiso-kreditu.

3. artikulua.– Erakunde onuradunak.

1.– Hauek dira Agindu honen bidez arautzen diren laguntzak jaso ditzaketen erakundeak:

a) Kirol-federazioak, kirol-klubak, kirol-elkartek eta kirola helburu duten merkataritza-sozietateak, baldin eta legez eratuak izanik erregistro egokian inskribaturik badaude eta Euskal Autonomia Erkidegoan badute egoitza soziala.

b) Goragoko atalean aurreikusi gabeko erakunde nortasun juridikodunak, baldin eta betekizun hauek konplitzen badituzte: legez eratuak izatea, erregistro egokian inskribaturik egotea, egoitza soziala Euskal Autonomia Erkidegoan izatea, eta kirol-modalitateen inguruko jarduerak antolatzea aldian-aldian edo noizean behin.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko toki-erakundeak.

2.– Ezingo dute diru-laguntzarik jaso Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 artikuluan azaldutako egoeraren batean dauden pertsonak edo erakundeak.

Ezin izango dute deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzarik lortu laguntza publikoak lortzeko zigor administratibo edo penalen bat duten erakundeek, ez eta horretarako gaitasuna kentzen dien legezko debekuren bat dutenek ere. Halaber, ezin izango dute diru-laguntzarik lortu, zehapenak ezarritako epean zehar, sexu-bereizkeria dela-eta zigor administratibo edo penalen bat dutenek, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenean ezarritakoaren arabera.

Halaber, diru-laguntza hau ezin izango dute jaso Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza honek lehiaketa beragatik bideratutako diru-laguntza izendun edo zuzenik hartu duten erakundeek.

3.– Edonola ere, erakunde onuradunei diru-laguntzak emateko eta, hala badagokio, ordaintzeko, ezinbestekoa izango da amaituta egotea itzulketa- edo zehapen-prozedura oro, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren erakunde autonomoek emandako izaera bereko laguntza edo diru-laguntzengatik hasitakoak eta artean izapidetzen ari direnak. Orobat, eta, hala badagokio, ezinbestekoa izango da diru-laguntzak itzultzearen ondoriozko obligazioak ordainduta izatea.

4.– Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 29. artikuluan eta uztailaren 21eko 887/2006 Araudiaren 68. artikuluan arautuarekin bat, diruz lagundutako jardueraren atal bat gauzatzea azpikontratatu ahal izango du erakunde onuradunak, baldin eta azpikontratazioaren ehunekoa ez bada jarduera horren % 50 baino gehiago.

5.– Era berean, onuradunek egunean egon beharko dute zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzeari dagokionez.

4. artikulua.– Emateko prozedura.

1.– Laguntzen zenbatekoa zehazteko, lehiaketa bidezko prozedura erabiliko da, eta horren ondorioz, Agindu honetako 2. artikuluan esleitutako zuzkidura ekonomikoa honelaxe banatuko da: 11. artikuluan zehaztu irizpideak aplikatuaz, balioespen-fasean eskabideek lortutako puntuazioaren arabera, betiere aipatu artikulua 8. paragrafoan ezarritako diru-laguntzaren zenbateko maximoa errespetatuz edo, kasua bada, txikiagoa izanez gero, eskatutako zenbatekoa.

2.– Diru-laguntzei buruzko proposamena eta ebazpena egiteko, betiere kontuan izan beharko dira ezarritako diru-laguntzako mugak.

5. artikulua.– Eskabideen aurkezpena.

1.– Agindu honetan araututako diru-laguntzetarako eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

2.– Erakundeek derrigorrez izapidetu behar dute diru-laguntza bide elektronikotik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 artikuluan xedatutakoaren arabera.

3.– Erakunde interesdunek euskadi.eus egoitza elektronikoen bidez eskatu, kontsultatu eta gauzatu ahalko dituzte eskabidearekin lotutako izapide guztiak, helbide hauetan:

https://www.euskadi.eus/ayuda_subvencion/-/2017/organizar_deporte/es/

https://www.euskadi.eus/dirulaguntza/-/2017/kirol_antolatu/eu/

Eskabidearen ondoko izapideak, bide elektronikoa erabiliz, hemen egin daitezke:

<http://www.euskadi.eus/misgestiones>

<http://www.euskadi.eus/nirekudeaketak>

4.– Erakunde eskatzaileek euskaraz nahiz gaztelaniaz aurkez ditzakete eskabidea eta dokumentazioa, nahi duten eran. Era berean, prozedura osoan, erakunde eskatzaileak hautatutako hizkuntza erabiliko da, azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legeak, Euskararen Erabilera Normalizatzekoak, 5.2.a) eta 6.1 artikuluetan xedatutakoari jarraituz.

5.– Eskabidea aurkezteak esan nahi du berariaz eta formalki onartu direla deialdi honen oinarrietan zehaztutako baldintzak.

6. artikulua.– Eskaerarekin aurkeztu beharreko dokumentazioa.

1.– Diru-laguntzaren eskabidea aurkeztean, erakunde eskatzaileak baimena ematen dio organo kudeatzaileari automatikoki egiazta dezan, behar adina aldiz eta erakunde eskatzaileen baimenik gabe, laguntzak eskatzen dituzten erakundeek zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak betetzen dituztela. Hala ere, eskatzaileak baimen hori beren-beregi uka dezake, baina, kasu horretan, dagozkion egiaztagiria aurkeztu beharko ditu.

2.– Diru-laguntza eskatzen duen erakunde eskatzaileak berariaz adieraz dezake baimena ematen diola organo kudeatzaileari gainerako datu edo dokumentu guztiak lortu edo egiaztatzeko, Administrazio Publikoak egiaztapen, kontrol eta ikuskaritzaren alorrean dituen ahalmenak eragotzi gabe.

3.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren aldaketa aplikatuz, honako betebeharrak hauek konplitu direla egiaztatuko da eskabidean, erantzukizunpeko adierazpen bidez:

– Helburu bererako diru-laguntzak, laguntzak, diru-sarrerak edo beste baliabide batzuk eskatu, eta, hala badagokio, jaso direla adierazi beharko da, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorriak direla ere.

– Erakunde eskatzaileak ez du izan behar diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen dion zehapen administratibo edo penalik, ezta diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuaren bereizkeriaren ondoriozkoak barne, hala xedatzen baitu Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetatik seigarrenak.

– Aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta egungoan, «minimis» laguntzarik jaso ez izana nazioarteko edo estatuko ezein administrazio edo erakunde publikotatik, ez eta Europar Batasunaren arautegian baimendutako zenbatekoak baino gehiago jaso izana ere. Halako laguntzarik izan bada, eman diren «minimis» laguntzen zenbatekoak jasotzen dituen agiria aurkeztu beharko da. Betebeharrak horretatik kanpo geldituko dira jarduera ez-ekonomikoak gauzatzeagatik kirol izaerako irabazi-asmorik gabeko eskatzaileek jasotako laguntzak.

– Era berean, erakunde eskatzaileak adierazi beharko du eskabideko eta lagun duen dokumentazioko datu guztiak egiazkoak direla, eta indarreko araudian xedatutako baldintzak betetzen dituela diru-laguntza horien onuradun izateko.

4.– Euskal Autonomia Erkidegoko inongo Erregistro publikotan izena emanda ez dauden erakunde kasuan, erakundearen eratze-eskritura eta estatutuak.

5.– Ordezkaritza egiaztatzeko, hala dela sinesgarritasunez erakusten duen edozein bide erabili ahal izango da, zuzenbidean baliozkoa bada. Ondorio horietarako, ordezkariak egiaztatutako da «apud acta» ahalordetzearen bitartez egin bada, agerraldi pertsonala eginez edo dagokion egoitza elektronikoa agerraldi elektronikoa eginez, edo administrazio publiko eskuduren ahalordetzearen erregistro elektronikoa inskribatu izana egiaztatuz.

7. artikulua.– Jarduera esplikatzeko agiriak, eskabidearekin batera aurkeztu beharrekoak.

1.– Jardueraren memoria (II. eranskina).

– Nazioarteko federazioaren, Europako federazioaren edo nazioarteko liga profesionalaren egutegi ofizialeren kopia, zeinetan jasotzen baita zein lehiaketarako eskatzen den diru-laguntza; edo, bestela, URL lotura, zeinetan kontsulta baitaiteke aipatu egutegia.

– Kirol Kontseilu Gorenak nazioarteko lehiaketa egitea baimentzeko agiria. Lehiaketa ez bada egin eskabidea entregatutako unean, goian aipatutako dokumentua Kirolen Goi Kontseiluak egiten duenean entregatuko da.

– Zirkuitu edo ligaren formatuko lehiaketei dagokienez, erantsi proba guztien egutegia eta haiek non egingo diren jasotzen dituen agiria.

– Lehiaketa jada egin bada, erantsi emaitza ofizialak, betiere parte hartu duten kontinenteak, herrialdeak eta kirolariak zenbat izan diren zehaztuaz. Lehiaketa ez bada egin, erantsi aurreko urteko emaitza ofizialak eta lehiaketan parte hartuko duten kirolari-kopuruari buruzko aurreikuspena.

2.– Lehiaketan Kirol Kontseilu Gorenaren eta/edo Eusko Jaurlaritzaren zerrendetan goi-mailako kirolaritzat aitortzen diren kirolariak parte hartu izana egiaztatzeko agiriak.

Eskabidea aurkeztean, lehiaketa jada egin bada, arbitroaren akta, eta akta horretan zenbat goi-mailako euskal kirolari zerrendatzen diren egiaztatzeko agiriak.

Eskabidea aurkeztean, lehiaketa egin gabe badago, lehiaketan parte hartu eta irizpide hori konplitzen duten euskal kirolariei buruzko aurreikuspena, eta haiek goi-mailako direla egiaztatzeko agiriak.

Baldin eta aurreko urteetan deialdi honetako diru-laguntza helburu duen lehiaketa bereko aurreko edizioak egin izan balira, arbitroaren akta, eta egindako azken lehiaketan izan diren goi-mailako euskal kirolariak zenbat izan diren egiaztatzeko agiriak.

3.– Lehiaketako programa, emakumeen parte-hartzea sustatzen duten kirol-lehiaketako beste jarduera batzuk egiaztatuz, halakorik balitz. Era berean, maila edo parte-hartze txikiagoko kirol-lehiaketako beste jarduera batzuk egiaztatuko dira, halakorik balitz.

4.– Jarduerako sarrera eta gastuen aurrekontu banakatu eta zehaztua (III. eranskina).

5.– Jarduera beste erakunde publiko edo pribatuekin elkarlanean edo hitzarmen bidez garatzen bada, hori egiaztatzen duen hitzarmen edo kontratuaren kopia. Kasu horretan, eskatzailea ez den erakunde antolatzaileari dagokionez, goragoko paragrafoetan ezarritako agiriak eskatu ahal izango dira.

6.– Eskabidea baloratzeko egoki irizitako beste dokumentazio osagarria.

7.– Emandako dokumentazio guztiek hizkuntza inklusibo eta ez-sexista izan beharko dute. Gainera, emandako datu guztiek sexuaren arabera bereizita egon beharko dute.

8. artikulua.– Diru-laguntzak kudeatzea.

Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak kudeatuko ditu deialdi honetan aurreikusten diren diru-laguntzak.

9. artikulua.– Akatsak zuzentzea.

Eskabidea izapidetzeko eskatzen diren agiri batzuk falta direla edo horietan forma-akatsak daukela ikusiz gero, edo eskabidea baloratzeko aurkeztutako agirietan akatsak aurkituz gero, hamar egun balioduneko epea emango zaio interesdunari huts-egitea konpontzeko edo aginduzko agiriak aurkezteko, eta jakinaraziko zaio hori egiten ez badu haren eskabidean atzera egin duela edo izapidetzeko eskubidea galdu duela ulertuko dela; betiere, aurrez, dagokion ebazpena emango da.

Erakunde eskatzaileraren batek eskabidea presentzialki aurkeztu badu, zuzenketak aurkezpen elektronikoaren bidez egiteko eskatuko zaio. Horretarako, zuzenketa egin zeneko eguna hartuko da eskabidearen aurkezpen-eguntzat.

10. artikulua.– Balorazio Batzordea.

1.– Balorazio Batzorde bat eratuko da aurkeztutako eskabideak eta agiriak aztertzeko. Honako hauek osatuko dute Batzordea: Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendaria (Batzordeko presidentea izango da) eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeak izendatutako arlo horretako bi teknikari (horietako bat idazkaria izango da). Batzorde horrek Fadurako Hobekuntza Teknikorako Zentroko langileen aholkularitza izango du diru-laguntza ebazteko erabiltako irizpide teknikoei eta kirol-irizpideei dagokienez.

2.– Era berean, Balorazio Batzordearen bileretara bertaratu ahal izango dira, hitzarekin baina botorik gabe, aztertu beharreko gaien inguruan jakintza espezifikoak duten pertsonak, bertaratuen gehiengoak onartuz gero.

3.– Balorazio Batzordea eraterakoan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 3.7. artikuluan ezarritakoa beteko da.

4.– Balorazio Batzordearen osaera EHAA-n argitaratuko da, eratu aurretik, interesa duen edozeinek aukera izan dezan beren errefusatze-eskubideaz baliatzeko, lege ezarritako egoera eta baldintzetan.

5.– Balorazio Batzordeak egokitzen jotzen dituen argibide guztiak eskatu ahalko dizkie eskatzailerari, aurkeztutako eskabideak behar bezala aztertu ahal izateko beharrezkoa dela irizten badi; era berean, beharrezkotzat jotako txosten teknikoak ere eskatu ahalko ditu.

6.– Batzorde horrek arrazoitutako ebazpen-proposamena egingo du, ezarritako esleipen-irizpideetan oinarrituta, eta Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeari helaraziko dio.

11. artikulua.– Balorazio- eta hautaketa-irizpideak.

Balorazio Batzordeak aztertuko ditu jasotako eskabideak, eta zehazten diren alderdiak ebaluatuko ditu, jarraian aipatzen diren baremo eta irizpideen arabera:

1.– Probaren edo lehiaketaren maila (50 puntura arte):

– Munduko txapelketak: 50 puntu.

– Europako txapelketa: 45 puntu.

– Munduko txapelketa, zirkuitu edo ligaren formatukoa: 30 puntu.

– Munduko kopa: 35 puntu.

– Kategoria goreneko nazioarteko probak: 30 puntu.

– I Nazioarteko beste proba batzuk: 15 puntu.

– II Nazioarteko beste proba batzuk: 10 puntu.

– III Nazioarteko beste proba batzuk: 5 puntu.

2.– Kategoria absolutua (10 puntu).

Lehiaketa kategoria absolutukoa dela egiaztatzen duten eskabideek 10 puntu lortuko dituzte; hala ez bada: 0 puntu.

3.– Lehiaketa programa olinpikoan sartuta egotea (10 puntu).

Lehiaketa programa olinpikoan sartua dela egiaztatzen duten eskabideek 10 puntu lortuko dituzte; hala ez bada: 0 puntu.

4.– Goi-mailako euskal kirolarien parte-hartzea lehiaketan (5 puntu). Irizpide hori baloratzeko, goi-mailako euskal kirolaritzat hartuko dira Kirol Kontseilu Gorenaren eta/edo Eusko Jaurlaritzaren zerrendetan goi-mailako kirolaritzat aitortzen direnak.

Lehiaketan goi-mailako kirolari batek edo gehiagok parte hartzen duela egiaztatzen duten eskabideek 5 puntu lortuko dituzte; halako parte-hartzerik ez bada, aldiz, 0 puntu.

5.– Lehiaketa zenbat aldiz egin den (20 puntura arte): 2017ko edizioa kontuan izanik.

Edizio-kopuruaren arabera egingo da puntu-banaketa, taula honetan oinarriturik:

- 50 edizio baino gehiago: 20 puntu.
- 41-50: 15 puntu.
- 31-40: 10 puntu.
- 16-30: 5 puntu.
- 1-15: 0 puntu.

6.– Goi-mailako kirol-lehiaketari buruzko programan maila eta/edo partaidetza apalagoko lehiaketa-kirolen jarduerak sartzea (5 puntu).

Emakumeak gutxi ordezkaturik dauden kirolean emakumeen parte-hartzea sustatzen duten lehiaketak direnean (10 puntu).

7.– Nazioarteko Batzorde Olinpikoak aitortzen ez duen erakundeek antolatutako proba oro nazioarteko beste proba batzuetarako artikuluko honetako 1. paragrafoan ezarritakoaren arabera baloratuko da.

8.– Jarduera bakoitzeko diru-laguntza hogeita mila (20.000) eurokoa izango da, gehienez.

9.– Baldin eta, aurreko paragrafoan ezarritako muga aplikatzearen ondorioz, agindu honetan ezarritako balorazio-irizpideen arabera banaketarekin bat etorriaz esleitutako zenbateko guztia

erabiltzen ez bada, beharrezko doiketak egin ahal izango dira gaindikina zenbateko osagarriak jaso ditzaketen onuradunen artean banatzeko.

12. artikulua.– Bateragarritasuna.

Agindu honetan ezarritako mugak eragotzi gabe, deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzak eta beste edozein erakunde publikok edo pribatuk emandako diru-laguntzak, laguntzak, sarre-rak eta bestelako baliabideak bateragarriak izango dira, baldin eta helburu bererako badira eta, betiere, gainfinantzaketarik gertatzen ez bada. Izan ere, gainfinantzaketarik gertatuz gero, dago-kion gehienezko mugaraino murriztuko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

13. artikulua.– Ebazpena.

1.– Deialdi honetan aurreikusitako diru-laguntzei dagokienez, Balorazio Batzordeak helarazi-tako proposamena aztertu ondoren, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeak eman eta jakinaraziko du ebazpena, sei hilabeteko epean, deialdia egiteko Agindu honek indarra hartzen duen egunetik aurrera. Ebazpen hori Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da, denek horren berri izan dezaten.

2.– Ebazpen-epea igarota, interesdunari ebazpena jakinarazi ez bazaio, eskabidea ezetsi zaiola ulertuko da, hala xedatzen baita Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 25. artikuluan.

3.– Aurreko paragrafoan esandakoa gorabehera, agindu honen 9. artikuluan xedatutakoa apli-katu behar bada, ebazpena emateko epea eten egingo da, izapide horrek eskatzen duen bezainbat denboraz, jakinarazpena jaso eta horri erantzuteko epearen arabera.

4.– Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuaren 30. artikuluan eta 39/2015 Legearen 43. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, jakinarazpena egintzat joko da haren edukira sartzen den unean. Kasuan-kasuan ezarritako epealdia, jakinarazpenaren xede-egintza jaso dela adierazteko sinadura elektronikoaren hurrengo egunetik aurrera hasiko da zenbatzen.

Jakinarazpenaren xede-egintza erakunde interesdunaren edo, hala badagokio, haren legezko ordezkariaren edo baimendutako pertsonaren eskura (aipatutako dekretuak adierazten duen hel-bide elektronikoan) jartzen denetik hamar eguneko epea igaro bada eta erakunde edo pertsona horrek ez badu jakinarazpen horren edukira jo, jakinarazpen horri uko egin diola ulertuko da. Hala-koetan, izapidea gauzatutzat joko da, eta prozedurak aurrera jarraituko du, salbu eta, ofizioz edo pertsona edo erakunde hartzaileak hala eskatuta, eduki horietara jotzeko ezintasun tekniko edo materialik egon dela egiaztatzen bada.

Interesdunak gailu elektroniko bat eta/edo helbide elektroniko bat eman ahal izango du jakina-razpenen oharrak bidaltzeko.

6.– Jakinarazten den ebazpenaren kontra, edo ebazteko epea inongo ebazpenik gabe igaro-takoan, interesdunek aukerako berraztertze errekurtso bat jarri ahal izango dute Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren aurrean, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erki-dearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan ezarritakoarekin bat etorriz. Dena dela, uztailaren 13ko 29/1998 Legean aurreikusitakoaren arabera administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jartzeko aukera ere izan dezakete.

14. artikulua.– Diru-laguntzaren ordainketa.

Diru-laguntza bi alditan ordainduko da: lehenean, diruz lagundutako zenbatekoaren ehuneko berrogeita bost, esleipen-ebazpena jakinaraztean eta hura onartzeko epea igarotakoan gauzatuko da; eta bigarrena, gainontzeko berrogeita hamabost, 2018ko urtarrilaren 1etik aurrera gauzatuko da, betiere diruz lagundutako lehiaketa justifikatzean, zeina 2018ko martxoaren 31 baino lehenago burutu beharko baita.

15. artikulua.– Onuradunen betebeharrak.

Agindu honetan araututako diru-laguntzen onuradunek beti bete beharko dute Diru-laguntza Orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 14. eta 16. artikuluetan araututako bete-beharren erregimena eta Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren –azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua– 48. artikulutik 53. artikulura ezarritako betebehar-erregimena; zehazki, honako hauek bete beharko dituzte edozein kasutan ere:

a) Diruz lagunduko den jarduera egitea.

b) Esleitutako diru-laguntza onartzea. Alde horretatik, diru-laguntza eman zaiela jakitera ematen duen jakinarazpena jaso eta hamabost egun balioduneko epean, onuradunek ez badiote idatziz eta espresuki uko egiten diru-laguntzari, onartu egin dutela ulertuko da.

c) Diru-laguntzarako eskabidea aurkeztu ostean burutzen bada lehiaketa, burututakoan, arbitroaren aktak eta lehiaketako behin betiko programa helaraztea Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari.

d) Aurkeztu den aurrekontuan agertzen diren gastuak ordaintzeko erabiltzea diru-laguntza, Kultura, eta Hizkuntza Politikako sailburuordearen emate-ebazpenarekin bat etorriaz.

e) Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzari, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiari deialdi honen bidez jasotako diru-laguntzei buruzko informazioa ematea, haiek hala eskatuz gero beren funtzioen jardunean.

f) Jarduera beste diru-laguntza, laguntza, sarrera edo baliabide batzuekin finantzatu dela jakinaraztea diru-laguntza ematen duten organoari. Adierazitakoaren berri izan bezain laster egin beharko da jakinarazpen hori, eta, nolana ere, jasotako funtsei emandako aplikazioa justifikatu baino lehen.

g) Jakinaren gainean egotea haien zerga-betebeharrei eta Gizarte Segurantzaren aurreko bete-beharrei dagokienez, diru-laguntza ordaintzen den unean.

h) Kontabilitate-liburuak, erregistro bideratuak eta gainerako agiriak behar bezala ikuskatuak izatea onuradunari kasu bakoitzean aplikatzekoa zaion merkataritza-legeriak eta sektorekoak eskatutako baldintzetan, eta diru-laguntzen oinarri arautzaileek eskatutako kontabilitateko egoera-orri eta erregistro espezifiko oro, egiaztatze- eta kontrol-jardun egokia bermatzeko.

i) Jasotako funtsen aplikazioa justifikatzen duten agiriak gordetzea, agiri elektronikoak barne, egiaztatze- eta kontrol-jardueretan eskatu ahal izango baitira.

j) Jarduerak irauten duen bitartean, leku agerian jarri behar da Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politikako Sailaren diru-laguntzaren berri, salbu eta diru-laguntza ematen bada lehiaketa egin ostean.

k) Jarduera aurkezteko burutzen diren ekitaldi publikoetara deitzea Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza, salbu eta ekitaldia burutu ostean eman bada diru-laguntza; kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortutako agirietan jaso beharko da.

l) Sexismorik gabeko hizkera erabiltzea diruz lagundutako jarduerarekin lotutako ekitaldi guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak agintzen duenari jarraituz. Gizon eta emakumeen rolei dagokienez, erabilera estereotipaturik ez dagoela bermatzea.

m) Jasotako funtsak itzultzea deialdi honen araudian aurreikusitako kasuetan.

16. artikulua.– Diru-laguntzaren justifikazioa.

Justifikazioak bide elektronikoz aurkeztuko dira 2018ko martxoaren 31 baino lehen, Agindu honen 5. artikuluan ezarritako jarraibideei jarraituz eta eskabideak egiteko diru-laguntzen Lege Orokorraren 30. artikuluan ezarritako kontuan hartuta, salbu eta elektronikoak ez diren jatorrizko fakturak. Horiek Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren zuzendariari bidali beharko zaizkio eta EAeko erregistro laguntzaileetan aurkeztu ahal izango dira (Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta bere erakunde autonomiadunen erregistroen sorrera, antolaketa eta funtzionamenduari buruzko apirilaren 29ko 72/2008 Dekretuan jasoak) edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako organoen aurrean.

Egiaztagiriak:

a) Jardueraren gauzatzeari buruzko memoria, zeinetan, gutxienez, jasotzen baitira agindu honetan, baloratuko diren gaiak, datu guztiak sexuaren arabera bereizita dituela.

b) Diru-laguntzarako eskabidea aurkeztu ostean burutu bada lehiaketa, arbitroaren aktak, eta lehiaketako behin betiko programa.

c) Jatorrizko fakturen bidez eta zuzenbide- eta merkataritza-zirkulazioan froga-balio baliokidea duten edo administrazio-efikazia duten gainerako jatorrizko agirien bidez egiaztatuko dira gastuak.

Faktura elektronikoen bidez ere egiaztatu ahal izango dira gastuak, baldin eta zerga-arloan onartuak izateko betekizunak betetzen badituzte, betiere.

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoaren adinako diru-kopurua egiaztatuko da. Hala ere, hasieran aurkeztu gabeko eta gertakariaren kostu osoa barne hartzen duten egiaztagiriak emateko eskatu ahal izango dio organo emaileak onuradunari.

d) Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza berariaz aipatzen duten dokumentu guztien aleak, laguntza emateko ebazpenean ezarritako baldintzen arabera.

e) Jarduera edo programa gauzatzean Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili direla egiaztatzen duten agiriak.

f) Ekitaldiaren kostuaren behin betiko balantzea; diru-sarrera eta gastu guztiak adierazita. Berezi jaso beharko da helburu berarekin eskuratutako gainerako laguntzen zerrenda, baldin eta eskabideak aurkezteko unean haiek eraginkor izango ziren jakiterik ez bazegoen (IV. eranskina).

17. artikulua.– Diruz lagundu daitezkeen gastuak.

1.– Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko dira diruz lagundutako jardueraren izaerari zalarrik gabe erantzuten diotenak, beharrezko direnak eta 2017. urtean ezarritako epean egiten direnak.

Diruz lagundutako gastuen eskuratze-kostuak ez du, inola ere, merkatuko balioa gaindituko.

2.– Horretarako, egindako gastutzat hartuko dira justifikatzeko epea amaitu aurretik egiazki ordaindu direnak.

3.– Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onartzeko azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan kontratu txikirako ezarritako zenbatekoak gainditzen dituenean diruz lagundu daitezkeen gastuaren zenbatekoak, onuradunak, zerbitzua edo ondasuna emateko konpromisoa hartu aurretik, hornitzaile desberdinen gutxienez hiru eskaintza eskatu beharko ditu, salbu eta ezaugarri bereziak izateagatik merkatuan ez badago halako zerbitzurik eskaintzen duen nahikoa erakunde, edo salbu eta gastua diru-laguntzaren aurretik egin bada.

Aurkeztutako eskaintzen artetik aukeraketa egiteko (justifikazioan edo, hala badagokio, diru-laguntzaren eskabidean aurkeztuko dira), efizientzia-eta ekonomia-irizpideak erabiliko dira, eta txosten baten bidez berariaz justifikatu beharko da proposamen ekonomikorik onena aukeratzeko ez denean.

4.– Finantza-gastuak, aholkularitza juridiko edo finantzarioko gastuak, notario- eta erregistro-gastuak eta diruz lagundutako proiektua egiteko gastuak eta administrazio-gastu espezifikoak diruz lagundu daitezkeen gastuak dira, baldin eta diruz lagundutako jarduerarekin zuzenean lotuta badaude eta baldin eta hura behar bezala antolatzeko edo egiteko ezinbestekoak badira.

Honako hauek ezingo dira inolaz ere diruz lagundu:

- a) Banku-kontuetako interes zordunak.
- b) Interesak, errekaruak eta administrazio-zehapenak eta zehapen penalak.
- c) Prozedura judizialen gastuak.

5.– Zergak diruz lagundu ahal izango dira, baldin eta onuradunak egiazki ordaintzen baditu. Ez dira inoiz diruz lagundu daitezkeen gastuak izango zeharkako zergak, baldin eta errekueratu edo konpentsatu badaitezke; errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

6.– Zeharkako kostuak, diruz lagundutako jarduerari egotziko dizkio onuradunak, arrazoiz dagokion partean, oro har onartutako kontabilitate-printzipio eta -arauekin bat etorritik, eta, betiere, jarduera egiten den aldiari badagozkie kostu horiek.

18. artikulua.– Likidazio-ebazpena.

Diru-laguntza ematerakoan kontuan hartutako baldintzak aldatzen badira –diru-laguntzaren xedea bete bada, betiere– edo, hala badagokio, beste erakunde publiko zein pribatu batzuetatik bestelako diru-laguntza eta laguntza bateragarriren bat jaso bada, diru-laguntza emateko ebazpena aldatu ahal izango da diru-laguntzaren araudi erregulatzailan ezarritako baldintzetan eta diru-laguntzen arauak ezarritako onuradun izateko gutxienezko eskakizunak zaintzen badira.

Horretarako, Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuordeak likidazio-ebazpena emango du, zinetan doituko baitira esleitutako diru-laguntzaren zenbatekoak.

19. artikulua.– Ez betetzea.

1.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 artikuluan (azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartua) eta Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37. artikulua ezarritakoak dira ustezko ez-betetzeak.

2.– Horrelako ez-betetzeren bat gertatuz gero, jasotako zenbatekoak eta legezko berandutze-interesak Euskal Autonomia Erkidegoko Diruzaintza Nagusiari itzuli beharko zaizkio, osotasunean edo partzialki, betiere xedapen hauen arabera: Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 37.1 eta 37.2 artikulua; azaroaren 11ko 1/1997 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bateginaren 53.1 eta 2. artikuluetan ezarritako baldintzak; eta Euskal Autonomi Elkartearen Aurrekontu Orokorren pentzutan ematen diren diru-laguntzen bermeei eta horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duen eta horien kudeaketan parte hartzen duten Izaki Laguntzaileek bete beharreko baldintzak, erregimena eta eginbeharrak ezartzen dituen abenduaren 17ko 698/1991 Dekretuaren 4. artikulua.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoarekin (abenduaren 13ko 15/1999) eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko Legearekin (otsailaren 25eko 2/2004) bat etorriz, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak jakinarazten dizu ematen dituzun datuak eta diru-laguntzen deialdi honetako eskabidean eta fitxategietan agertzen direnak «Kultura Kirolen Laguntzak eta Diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean sartuko direla. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarena da fitxategia, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko abenduaren 2ko Aginduan dago erregulatuta, Agindu horren bidez arautzen baitira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko (hizkuntza-politikaren, kulturaren eta gizarte-hedabideen arloak) datu pertsonalen fitxategiak. Fitxategi horren helburua kirolaren arloko diru-laguntzak kudeatzea da. Fitxategi horren berri aurretik eman zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eta datuen erabateko segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurriak ditu. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, salbu eta legeak gaitutako kasuetan.

Datu pertsonalak babesteari buruzko arautegiarekin bat etorriz, datu horiek eskuratzeko, ezabatze, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dute interesdunek, halaxe onartzen baitu beren-beregi Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Legeak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzara jo beharko dute (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Deialdi honetan parte hartzen duten erakundeek baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatu eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiazta daitezen (Administrazio honen esku egon zein beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

AZKEN XEDAPENETATIK LEHENENGOA

Agindu honek amaiera ematen dio administrazio-bideari. Beraz, beraren aurka, interesdunek berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango diote Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuari, hilabeteko epean, agindua argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, edo bestela administrazioa-
rekiko auzi-errekurtsoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, agindua Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

AZKEN XEDAPENETATIK BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunetik aurrera izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteizen, 2017ren uztailaren 11n.

Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburua,
BINGEN ZUPIRIA GOROSTIDI.

2017ko uztailaren 17a, astelehena

I. ERANSKINA

DIRU-LAGUNTZAREN ESKABIDEA

2017. URTEAN GOI-MAILAKO NAZIOARTEKO KIROL-LEHIAKETETAN PARTE
HARTZEKO DIRU-LAGUNTZAK.

ESKABIDEA NORK AURKEZTEN DUEN

Titularra Ordezkarria

DATU PERTSONALAK

 TITULARRA

Izena / Erakundearen izena IFZ/IFKn ageri den izen bera izan behar du:

.....

Telefonia:.....

 ORDEZKARIA

Izena / Erakundearen izena

.....

Lehen abizena.....

Bigarren abizena.....

Sexua:

Gizonezk

Emak mezkoa

IFZ- edo NAN-zenbakia.....

Telefono-zenbakia:.....

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKORAKO OHARRA

Posta elektronikoa (puntu eta koma bidez bereizita)

Mugikorraren zenbakia (sms) (puntu eta koma bidez bereizita)

ADIERAZI ZER HIZKUNTZATAN JASO NAHI DITUZUN JAKINARAZPEN,
KOMUNIKAZIO ETA OHARTARAZPENAK

Euskara

Gaztelania

BESTE DATU INTERESGARRI BATZUK

Titularraren betebeharrak fiskalei buruzko informazioa duen Zerga Administrazioa zein herrialdean/probintzian dagoen:.....

ERANTZUKIZUNPEKO ADIERAZPENAK

- Ez naizela xede honekin berarekin inongo administrazio publiko edo erakunde pribaturen diru-laguntzarik jasotzen ari.
- Diru-laguntza bat eskatu diodala administrazio publikoren edo erakunde pribaturen bati eta eman egin didatela (puntu honetako datuak III. eranskineko agirian zehaztu behar dira)
- Diru-laguntza bat eskatu diodala administrazio publikoren edo erakunde pribaturen bati eta ebazteke dagoela (puntu honetako datuak III. eranskineko agirian zehaztu behar dira)
- Erakunde eskatzaileak bi sexuen arteko tratu-berdintasuna bermatuko duela kirol-lehiaketetan.
- Hedatzeko edozein bitartekotan adieraziko duela erakunde eskatzaileak Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza izan duela ekitaldian parte hartzeko, eta ekitaldian parte hartzearekin lotutako ekitaldi publikoetara gonbidatuko duela Eusko Jaurlaritzako Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritza, diru-laguntza ekitaldia egin ostean ematen ez bada behintzat; azken kasu horretan, diru-laguntza emateko ebazpena jakinarazten denetik aurrera sortuko dituzten agiri guztietan adierazi beharko dute hori.
- Ez daukadala diru-laguntza edo laguntza publikoak eskuratzeko aukera ukatzen didan zigor administratibo edo penalik, ezta diru-laguntzak jasotzeko legezko debekurik ere, sexuaren bereizkeriaren ondoriozkoak barne, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen azken xedapenetako seigarrenean xedatzen duena aintzat hartuta.
- Egunean ditudala indarreko xedapenek ezartzen dituzten zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak, arauz zehaztu den bezala.
- Aurreko bi ekitaldi fiskaletan eta egungoan, «minimis» laguntzarik jaso ez izana nazioarteko edo estatuko ezein administrazio edo erakunde publikotatik.
- Egiazkoak direla eskabidean eta eskabidearekin batera doazen agirietan emandako datuak.
- Betetzen ditudala laguntza hauen onuradun izateko baldintzak, betiere indarrean den legedian jasotzen direnak.

BAIMENAK**Identitate-datuak**

- Baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari datu horiek eskumeneko Administrazioan egiaztatu edo frogatzeko, bide elektronikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bideak baliatuz.

Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren epigrafeak

- Baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari datu horiek eskumeneko Administrazioan egiaztatu edo frogatzeko, bide elektronikoen bidez edo, hala badagokio, eskuragarri dauden bideak baliatuz.

Hirugarrenen alta

- Baimena ematen diot deialdi honen organo kudeatzaileari datu horiek eskumeneko Administrazioan egiaztatu edo frogatzeko, bide elektronikoen bidez edo, dagokionean, eskuragarri dauden bideak baliatuz.

DATU PERTSONALAK BABESTEIA

Datu Pertsonalak Babesteari buruzko Lege Organikoarekin (abenduaren 13ko 15/1999) eta Datu Pertsonaletarako Jabetza Publikoko Fitxategiei buruzko Legearekin (otsailaren 25eko 2/2004) bat etorritik, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zuzendaritzak jakinarazten dizu ematen dituzun datuak eta diru-laguntzen deialdi honetako eskabidean eta fitxategietan agertzen direnak «Kultura Kirolen Laguntzak eta Diru-laguntzak» izeneko fitxategi batean sartuko direla. Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarena da fitxategia, eta Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuaren 2015eko abenduaren 2ko Aginduan dago erregulatuta, Agindu horren bidez arautzen baitira, Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Saileko (hizkuntza-politikaren, kulturaren eta gizarte-hedabideen arloak) datu pertsonalen fitxategiak. Fitxategi horren helburua kirolaren arloko diru-laguntzak kudeatzea da. Fitxategi horren berri aurretik eman zaio Datuak Babesteko Euskal Bulegoari eta datuen erabateko segurtasuna bermatzeko beharrezko segurtasun-neurriak ditu. Datu horiek ez zaizkie hirugarrenei jakinaraziko, salbu eta legeak gaitutako kasuetan.

Datu pertsonalak babesteari buruzko arautegiarekin bat etorritik, datu horiek eskuratzeko, ezabatzeko, zuzentzeko eta horien aurka egiteko aukera dute interesdunek, halaxe onartzen baitu beren-beregi Izaera Pertsonaleko Datuak Babesteari buruzko Legeak. Horretarako, Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Saileko Araubide Juridikoaren eta Zerbitzuen Zuzendaritzara jo beharko dute (Donostia kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz).

Deialdi honetan parte hartzen duten erakundeek baimena ematen diote Administrazioari emandako datuak konparatu eta aurkeztutako agiriak benetakoak direla egiazta daitezen (Administrazio honen esku egon zein beste Administrazio Publiko batzuen esku egon), laguntzen onuradun izateko eskatutako baldintzak betetzen direla edo betetzen jarraitzen dela egiaztatzeko.

.....(e)n,(e)koaren(e)(a)n.

(Titularraren edo ordezkariaren sinadura)

DOKUMENTUARI BURUZKO ARGIBIDEAK**ESKABIDEA NORK AURKEZTEN DUEN**

Pertsona juridikoek ordezkariarekin jardungo dute beti, beraz, «ESKABIDEA NORK AURKEZTEN DUEN» atalean «Ordezkaria» aukera hautatu behar du eta «DATU PERTSONALAK» atalean titular gisa erakundearen datuak bete eta erakundearen ordezkariarenak «Ordezkaria» atalean. Eskabidea ordezkariak sinatuko du.

JAKINARAZPENA

ELEKTRONIKOA: erakunde eskatzaileak «Nire kudeaketak» jakinarazpen-bandejan jasoko ditu jakinarazpenak, web-orri honetan: www.euskadi.net/misgestiones. «Nire kudeaketak» atalen sartzeko, eskatzaileak aitortutako egiaztagiri elektronikoko bat behar du (ONA, e-NAN, herritartasun-ziurtagiria, entitatea, FNMT, itsasontzi-jokoa)

JAKINARAZPEN ELEKTRONIKORAKO OHARRA

Administrazioak erakunde eskatzaileen esku posta elektronikoko bidezko edo mugikor bidezko zerbitzu bat jarriko du, eta jakinarazpen bat egiten duten bakoitzean, horren berri emango dio.

Nahi adina posta elektronikoko eta telefono mugikor zenbaki sartu ahal izango dira, guztietan, puntu eta koma (;) bidez bereizita, betiere.

2017ko uztailaren 17a, astelehena

II. ERANSKINA
LEHIAKETAREN DATUAK

Lehiaketaren izena, data eta tokoa:
.....
.....
.....

Probaren edo lehiaketaren maila:
.....
.....
.....

Kategoria absolutua:
<input type="checkbox"/> Bai
<input type="checkbox"/> Ez

Programa olimpikoa barne:
<input type="checkbox"/> Bai
<input type="checkbox"/> Ez

Parte-hartzea (1) (2):
Kontinenteen kopurua
.....
.....
Herrialdeen kopurua
.....
.....
Parte-hartzaileen kopurua:
<input type="checkbox"/> Gizonak:
<input type="checkbox"/> Emakumeak:

Lehiaketan goi-mailako euskal kirolariek parte hartzea
<input type="checkbox"/> Gizonak:
<input type="checkbox"/> Emakumeak:

Aurtengo lehiaketaren edizio-kopurua:
.....

Programan maila eta/edo parte-hartze txikiagoko kirol-lehiaketako beste jarduerak batzuk sartzea

Ez

Bai Zehaztu zer jarduerak eta programa erantsi

.....

Programan emakumeen parte-hartzea sustatzen duten kirol-lehiaketako beste jarduerak batzuk sartzea

Ez

Bai Zehaztu zer jarduerak eta programa erantsi

.....

Interesgarri irizten den jarduerari buruzko beste datu batzuk

.....

Egutegi ofizialari dagokion URL.

.....

(1) Proba egin bada:

- Lehiaketaren emaitza ofizialak, zenbat kontinentek, parte-hartzailek eta euskal kirolarik (Goi Mailako Kirolariak/Kirolen Goi Kontseilua) parte hartu duten

(2) Proba egin ez bada:

- Aurreko urteko emaitza ofizialak.
- Lehiaketan parte hartuko duten kirolarien aurreikuspena.

2017ko uztailaren 17a, astelehena

III. ERANSKINA
AURREKONTUA (1)

Egun-kopurua:

Azaldu ea badagoen lehiaketa-espaziorako logistikarik ala eraiki/egokitu beharra dagoen:

.....

.....

.....

.....

.....

.....

GASTUAK	
Kontzeptua	Zenbatekoa
Lehiaketa antolatzeko kontratatutako pertsonak/enpresak
.....
.....
Nazioarteko Federazioaren, Europako Federazioaren edo Liga Profesionalaren antolakuntza-tasak
.....
.....
Lehiaketa-espazioa (alokatzea, eraikitzea, egokitzea, etab.)
.....
.....
.....
Beste gastu batzuk
.....
.....
.....
Orotara	

2017ko uztailaren 17a, astelehena

DIRU-SARRERAK		
Kontzeptua	Zenbatekoa	Estatua
Eskatzailearen ekarpena		
.....
Erakunde publikoen ekarpenak		
.....
.....
.....
Erakunde pribatuen ekarpenak		
.....
.....
.....
Beste diru-sarrera batzuk		
.....
.....
.....
Orotara		
Eskatutako diru-laguntza		

(1) Aurrekontuak orekatua izan behar du, hau da, gastuak berdin diru-sarrerak (eskatutako diru-laguntza barne).

2017ko uztailaren 17a, astelehena

IV. ERANSKINA
KONTUEN BEHIN BETIKO BALANTZEA

GASTUAK			
Kontzeptua	Aurrekontuan jasotakoa	Gauzatutakoa	Justifikatua
Lehiaketa antolatzeko kontratatutako pertsonak/enpresak			
Nazioarteko Federazioaren, Europako Federazioaren edo Liga Profesionalaren antolakuntza-tasak			
Lehiaketa-espazioa (alokatzea, eraikitzea, egokitzea, etab.)			
Beste gastu batzuk			
Orotara			

2017ko uztailaren 17a, astelehena

DIRU-SARRERAK			
Kontzeptua	Aurrekontuan jasotakoa	Gauzatutakoa	Justifikatua
Eskatzailearen ekarpena			
.....
Erakunde publikoen ekarpenak			
.....
.....
.....
Erakunde pribatuen ekarpenak			
.....
.....
.....
Beste diru-sarrera batzuk			
.....
.....
Orotara			